

EROSKIren bezeroek elkartasuna erakutsi dute Eguberrietan

EROSKI -REN ELKARTASUN IZARREK 63.000 EURO PASA BILDU DITUZTE

- Biltzen den dirua osorik joango da UNICEFentzat eta EROSKI Fundazioarentzat, zertarako eta haurrak babesteko; kausa horren alde egin dute 5.000 Bezero Bazkide inguruk on line bidez
- Eguberrietako egun guztietan, kontsumitzaileek aukera izan dute gabon apaingarriak erosteko bi eurotxotan

Elorrio, 2019ko urtarrilaren 16a.- [EROSKI](#)ren *Elkartasun Izarren* kanpainak 63.000 euro pasa bildu ditu, urriaren azken aldera martxan jarri zenetik. EROSKIK laugarren urtez egin du kanpaina hori, [UNICEF](#)en Espainiako Batzordearekin batera (NBek haurren alde egiteko duen agentzia da UNICEF). *EROSKIren Eguberrietako apaingarria, Elkartasun Izarra*, salgai egon da Eguberrietako egun guztietan, eta kontsumitzaileek bi eurotxotan eskuratu ahal izan dute supermerkatu eta hipermerkatu sare osoko ordainlekuetan, baita on line supermerkatuan ere.

"Aurten ere, bezeroak gure alde irauli dira lehenbiziko egunetatik, eta elkartasun handia erakutsi digute. Eskerrak eman nahi dizkiegu beren eskuzabaltasunagatik eta Eguberri hauetan gure apaingarria erosteagatik. Guretzat oso garrantzitsua da zailtasun gogorrek dituztenei bizi kalitatea hobetzen laguntzea. Ekarpenari esker, beste behin batu ditugu indarrak gauza handiak lortzeko", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKIko 5.000 Bezero Bazkide inguruk erabakia dute zein izango den Eguberrietako elkartasun kanpainaren onuraduna, botoa on line emanda www.eroski.es webgunean. Hurrei laguntzea hautatu zuten, eta laguntza hori UNICEFen Espainiako Batzordeak bideratuko du. EROSKI Fundazioak ere bildu denaren zati bat hartuko du kausa horri laguntzeko.

UNICEF Espainiako Batzordeak larrialdien funtsean sartuko du dirua; komunikabideetan isilean doazen krisietarako erabiltzen da diru hori; izan ere, baliabide gutxiago izaten da horrelako egoeretan. Funts horrek balio du diru premia handiena dagoen lekuetan laguntzeko, hala nola gerran diren eskualdeetan, lehorteak diren lekuetan, goseteak eta/edo hondamendi naturalak diren guneeetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Hala, hasieratik lastertasunez jokatzeko modua ematen du munduko edozein tokitan; izan ere, horri esker, edateko ura eta saneamendua bermatzen diegu milioika neska-mutikori, baita mantenua, osasuna, hezkuntza eta babesaren ere.

"UNICEFen Espainiako Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie enpresa aliatuei, eta, kasu honetan, EROSKIri, haurrik zaurgarrienei laguntza ematen ari delako joan deneko 15 urtean. Izan ere, munduko 4 haurretik 1ek larrialdiren bat jasaten du, eta gero eta krisi gehiago eta korapilatsuagoak ari dira gertatzen. UNICEFen Larrialdi Funtzaren bitartez, ahazturiko larrialdirik makurrenetan sufritzen ari diren haurren eskubideei heltzen diegu", azaldu du Isidro Elezgaraiak, UNICEFen Euskal Autonomia Erkidegoko presidente eta UNICEFen Espainiako Batzordeko patronoak.

EROSKIri buruz

Kooperatibaren helburuetariko bat da gizartea enpresaren jarduerarekin eraldatzea. Kontsumo kooperatiba den aldetik, proiektu kolektiboa da EROSKI, kontsumitzaileari eta gizarteari emana. Horregatik, lau eremutan lantzen du bere konpromiso soziala, eta eremu horiek erakusten dute zein den haren gizarte erantzukizuna: elikadura osasungarriaren sustapena, kontsumitzailearentzako informazioa, ingurumen iraunkortasuna eta elkartasuna.

UNICEFi buruz

UNICEFek haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu. Bere aliatuekin batera, 190 herrialde eta lurraldetan dihardu konpromiso hori ekintza praktiko bihurtzeko. Ahaleginik handienak zaurgarrienak diren eta baztertuta dauden haurrengan jartzen ditu, eta haur guztien onura bilatzen du nonahi.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)